

1. MAILA

2. MAILA

3. MAILA

4. MAILA

1.3.1. Definitutako helburuak kontuan hartuta, helburu horiek lortzeko erantzun errealista ematea, planifikatu dena praktikan jartzea, jarraipena egitea eta doitzea.

Curriculumari eta antolaketari lotutako alderdien berrikuspina eta doitzea irakasle bakoitzaren edo dagokion irakasle-taldearen eskuetan uzten da.

Zuzendaritzak urteko planen gauzatzearen jarraipena egiten du, oinarrizko adierazleen bitartez. Balioespen garrantzitsuenak memorian jasotzen dira, eta hurrengo ikasturteko urteko planean aintzat hartzen dira.

Urteko planeko helburuak zehatzak dira eta urte horretan betetzekoak. Lorpen-maila kontrolatzen da, ebaluazio zehatza bideratzen duten adierazleen bitartez. Memoriak balioespenak jasotzen ditu, eta dagozkion hobetzeko proposamenak. Proposamen horiek aintzat hartzen dira beste plan batzuk edo irismen handiagoko proiektuak doitzeko.

Sistematizatuta dago elementu hauen bidez: prozesu-adierazleak, arduradunak, prozedurak, denborak... eta urteko helburuak lortzeko ekintzen doitzea, bai eta lerro estrategikoak edo ikastetxe-proiektuak egokitzea ere, memorietan jasotako konklusioak eta proposamenak baliatuta.

1.3.2. Hobekuntzarako esparruak bilatzea, hezkuntzaren arloko esku-hartzea eskola-arrakastarantz bideratzeko.

Hobekuntzak irakasleen banakako ekimenekin lotzen dira, baina ez dute zuzendaritzak zehaztutako ildorik jarraitzen. Ikasleari eman beharreko hezkuntza-arloko erantzuna hobetzeko aukeren bilaketa ez da aintzat hartzen.

Zuzendaritzak kontuan hartzen ditu eguneroko jardueran sortzen diren garapen- eta hobekuntza-aukerak (irakasleen edo hezkuntza-komunitateko beste sektore batzuetako kideen proposamenak, administrazioaren edo beste erakunde batzuen gomendioak...).

Eskola-emaitzen hobekuntzan aurrera egitea helburu hartuta, zuzendaritzak agerian jartzen du ikasteko eta irakasteko prozesuen eta antolaketa-prozesuen garapenerako eta hobekuntzarako aukerak bilatzeko jarrera duela.

Hezkuntza-erantzun egokienaren etengabeko bilaketa sistematizatzen da. Eskola-arrakastan eragin handiena duten alderdietan sakontzen da.

Aldaketak edo arazok aurreikusten dira eta sor daitezken distortsioak saihesteko edo murrizteko erantzun egokiena planifikatzen eta lantzen da .

Egoera horiek ikasteko aukera gisa planteatzen eta kudeatzen dira.